

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

% 42 egin dute behera trafiko istripuetako hildakoek Nafarroan 2011ko lehen bederatz hilabeteetan

Irailean 3 hildako izan ziren, 2 motor gidari eta bizikletari bat

Lunes, 03 de octubre de 2011

Nafarroako Gobernuak egin duen trafiko istripuetako biktimen behin-behineko balantzearen arabera, 2011ko lehen bederatz hilabeteetan 18 hildako erregistratu dira guztira (12 gizon eta 6 emakume) hiriko eta hiriarteko trafiko istripuetan. 2010ean, aldiz, garai berdinean 31 hildako izan ziren, % 42 gutxiago.

Irailean 3 hildako izan dira, eta 2010ean hildako bakarra izan zen. Azpimarratu beharrekoa da, 3 hildako horietatik 2 motor gidariak zirela eta bat bizikletaria; horrek ibilgailu horien gidariak ahulagoak direla adierazten du, bideetako gainerako erabiltzaileen aldean.

Nafarroako trafiko istripuen kopuruari dagokionez, 2011ko irailean 263 istripu gertatu dira guztira, 2010ko irailean baino % 22 gutxiago, orduan 335 istripu jazo baitziren. Ondorioen larritasunak ere behera egin du. 5 zauritu larri eta 2 zauritu arin gutxiago izan dira (2 eta 50 2011n eta 7 eta 53 2010ean, hurrenez hurren).